



## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

**Akta zenbakia:** 5/2018  
**Bilera eguna:** 2018-03-01  
**Bilera mota:** ez-ohikoa  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordua:** 07:30-7:45  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 5/2018  
**Fecha:** 1-03-2018  
**Tipo de reunión:** extraordinaria  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 07:30-7:45  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

#### **Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**  
Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**  
Maribel Vaquero Montero  
Jorge Segurado Iriondo  
Mikel Izaguirre Recondo  
Consuelo Frutos Gonzalez

**Idazkaria:**  
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2018ko martxoaren 1ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 7:30etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

#### **1.- Urnietako udaletxeko telekomunikazio zerbitzuen kontratua esleitzea.**

Kontratazio Mahaiko akta ikusita.

Ikusirik 2018ko otsailaren 19ko Administrazio Orokorreko Teknikariaren txotena.

2018ko otsailaren 26ean egindako Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak gaia aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

#### **Reunidos:**

**Alcalde:**  
Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**  
Maribel Vaquero Montero  
Jorge Segurado Iriondo  
Mikel Izaguirre Recondo  
Consuelo Frutos Gonzalez

**Secretario:**  
Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 1 de marzo de 2018, siendo las 7:30 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

#### **1.- Adjudicar el contrato de los servicios de telecomunicaciones del Ayuntamiento de urnieta.**

Visto el Acta de la Mesa de Contratación.

Visto el informe de la Técnica de Administración General de 19 de febrero de 2018.

Visto que la Comisión Informativa de Organización celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema, aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

Realizada la tramitación legalmente establecida, la Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.** EUSKALTEL S.A. (A-48766695) enpresari esleitzea Urnietako Udaleko Telekomunikazio zerbitzuaren kontratua, prozedura ireki bidez, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena eta preziorik baxuena esleipen irizpide bakarra kontuan hartuta, urtean 20.864,05,00 euroren truke (gehi 4.381,44 €-ko BEZa), guztira urtean 25.245,49 euroren truke. Kontratu hori 2017ko abenduaren 21ean onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratugilearen Profilean argitaratu zen.

**Bigarrena.** Gastua xedatzea hurrengo aurrekontuaren partidaren kargura, edo baliokidea dena, 2018, 2019, 2020 eta 2021 ekitaldietan.

**ACUERDO**

**Primero.** Adjudicar a la empresa EUSKALTEL S.A.(A-48766695) el contrato de servicios del Servicio de Telecomunicaciones del Ayuntamiento de Urnieta, por procedimiento abierto, oferta económicamente más ventajosa, un único criterio de adjudicación, aprobado por Junta de Gobierno Local de 21 de diciembre de 2017 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 15 de enero de 2018 y en el Perfil de contratante, por importe de 20.864,05 €/anuales (más 4.381,44 € correspondientes al IVA), lo que hace un total de 25.245,49 €/anuales.

**Segundo.** Disponer el gasto con cargo a las siguientes partidas o equivalentes del presupuesto de los ejercicios 2018, 2019, 2020.

1 0220.222.132.00.01 2017 (545)	545
1 0220.222.230.00.01 2017 (2593)	2593
1 0220.222.231.40.01 2017 (631)	631
1 0220.222.323.00.01 2017 (661)	661
1 0220.222.333.00.01 2017 (2594)	2594
1 0220.222.337.10.01 2017 (671)	671
1 0220.222.337.22.01 2017 (2133)	2133
1 0220.222.337.23.01 2017 (2130)	2130
1 0220.222.337.24.01 2017 (2135)	2135
1 0220.222.342.00.01 2017 (2128)	2128
1 0220.222.920.00.01 2017 (491)	491
1 0220.222.920.00.04 2017 (745)	745
1 0220.222.929.00.01 2017 (675)	675

**Hirugarrena.** Kontratua esleitu ez zaien lizitatzaillei esleipena jakinaraztea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 151.4. artikuluan aurreikusitako moduan.

**Laugarrena.** Ebazpen hau EUSKALTEL S.A.-ri (A-48766695) jakinaraztea eta kontratua sinatzeko dei egitea.

**Bosgarrena.** Urnietako Udaleko Telekomunikazio zerbitzuaren kontratuaren formalizazioa kontratugilearen Profilean argitaratzea.

**Tercero.** Notificar, en los términos previstos en el artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la adjudicación a los licitadores que no han resultado adjudicatarios.

**Cuarto.** Notificar a EUSKALTEL S.A.(A-48766695) adjudicatario del contrato, la presente Resolución y citarle para la firma del contrato.

**Quinto.** Publicar la formalización del contrato del servicio de Telecomunicaciones del Ayuntamiento de Urnieta en el Perfil de contratante.

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

**Seigarrena.** Kontratuaren oinarriko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 333. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Sexto.** Comunicar los datos básicos del contrato al Registro de Contratos del Sector Público, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 333 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

**2.- Zorraren zatiketak.**

2.1. [REDACTED] zorraren zatiketa eskaera.

Ikusirik 2018ko otsailaren 15ean [REDACTED] izenean, azken honek udalarekin dituen zorrak, 1.002,79 €, sei zatitan ordaintzeko egindako eskaera.

Ikusirik udalaren Zergak Kudeatzeko eta Biltzeko Urnieta Udala Ordenantzan 13.7. artikuluan jartzen duena.

2018ko otsailaren 26ko Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengo onartzen du:

**2.- Fraccionamientos de deudas.**

2.1. Solicitud de fraccionamiento de [REDACTED]

Visto el escrito de [REDACTED] con fecha de 15 de febrero de 2018 solicitando el fraccionamiento del pago de la deuda por importe de 1.002,79 € en seis plazos.

Visto lo establecido en el art. 13.7 de la Ordenanza Reguladora de Gestión y Recaudación Municipal

Visto que la Comisión Informativa de Organización celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**Lehenengo:** [REDACTED] izenean, egindako eskaera ontzat ematea, eta zorraren zatiketa jarraian azaltzen den taularen arabera sei hilabetetan egitea, udalaren Kutxabank ES12 2095 5068 63 1061730254 kontuan edo Bertanen ordainketak eginez:

**ACUERDO**

**Primero.-** Estimar la solicitud de [REDACTED], y conceder el fraccionamiento del pago en seis plazos, mediante transferencia a la cuenta del Ayuntamiento de Urnieta en la entidad colaboradora Kutxabank ES12 2095 5068 63 1061730254 o en Bertan, de acuerdo a la siguiente tabla:

Ordainketa data Fecha de pago	Zenbatekoa Importe	Argitalpenak Observaciones
2018/02/15	170,00	Ordaindua/Pagado
2018/03/15	170,00	
2018/04/16	170,00	
2018/05/15	170,00	
2018/06/15	170,00	
2018/07/16	152,79	
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>1.002,79</b>	

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

**Bigarrenago.** Ezarritako epeetan ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, premiamenduzko bidea jarraituko da, ordaindu gabeko zorra ordaindu dadin.

**Segundo.-** Si la obligación de pago en los plazos establecidos se incumple, se seguirá la vía de apremio para que se cumpla con el abono de la deuda impagada.

**2.2.** [REDACTED] zorraren zatiketa eskaera.

**2.2.** Solicitud de fraccionamiento de [REDACTED]

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 5ean [REDACTED] udalarekin dituen zorrak, 563,41 €, hiru zatitan ordaintzeko egindako eskaera.

Visto el escrito de [REDACTED] con fecha de 5 de enero de 2018 solicitando el fraccionamiento del pago de la deuda por importe de 563,41 € en tres plazos.

Ikusirik udalaren Zergak Kudeatzeko eta Biltzeko Urnietako Udal Ordenantzan 13.7. artikuluan jartzen duena.

Visto lo establecido en el art. 13.7 de la Ordenanza Reguladora de Gestión y Recaudación Municipal.

2018ko otsailaren 26ko Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

Visto que la Comisión Informativa de Organización celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengo onartzen du

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehenengo:** [REDACTED] eskaera ontzat ematea, eta zorraren zatiketa jarraian azaltzen den taularen arabera 3 hilabetetan egitea, udalaren Caixa ES19 2100 6252 19 0200002568 kontuan ordaindetak eginez:

**Primero.-** Estimar la solicitud de [REDACTED], y conceder el fraccionamiento del pago en tres plazos mediante transferencia a la cuenta del Ayuntamiento de Urnieta en la entidad colaboradora Caixa ES19 2100 6252 19 0200002568, de acuerdo a la siguiente tabla:

Ordainketa data Fecha de pago	Zenbatekoa Importe	Argitalpenak Observaciones
2018/01/05	187,81	Ordaindua / Pagado
2018/02/05	190,00	Ordaindua / Pagado
2018/03/05	185,60	
<b>GUZTIRA</b>	<b>563,41</b>	

**Bigarrenago.** Ezarritako epeetan ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, premiamenduzko bidea jarraituko da, ordaindu gabeko zorra ordaindu dadin.

**Segundo.-** Si la obligación de pago en los plazos establecidos se incumple, se seguirá la vía de apremio para que se cumpla con el abono de la deuda impagada.

**3.- Ordainagirien deuseztapenak.**

**3.- Anulaciones de recibos.**

2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak bere 227. artikuluan ezartzen duenaren arabera akats materialak,

Según lo establecido en el artículo 227 de la Norma Foral General Tributaria 2/2005 de 8 de marzo de 2005, donde dice que se rectificará en

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

gertatzezkoak edo aritmetikoak edozein momentutan, ofizioz edo interesatuak eskatuta, zuzenduko dira beti ere preskripzio epea igaro ez bada.

cualquier momento, de oficio o a instancia del interesado, los errores materiales, de hecho o aritméticos, siempre que no hubiera transcurrido el plazo de prescripción.

Hori dela eta, jarraian adierazten den taulan azaltzen diren zerga kitapenak akats materialak egon direlako ofizioz deuseztea proposatzen da:

Por ello, se propone anular de oficio los recibos indicados en la tabla detallada a continuación por errores materiales en sus liquidaciones:

Zergaduna Contribuyente	Zerga/tasa Impto/tasa	Erreziboa Recibo	Zenbatekoa Importe	Arrazoa Motivo	Oharrak Observaciones
102841	Gainbalioa Plusvalía	73 /2018/81	340,51	Akats materiala Error material	
102841	Gainbalioa Plusvalía	72 /2018/81	402,42	Akats materiala Error material	
104996	Ura-estold. Agua-alcant.	3010 /2017/04	92,97	Akats materiala Error material	Kitapen berria Nueva Liquid.
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>			<b>835,90 €</b>		

2018ko otsailaren 26ko Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

Visto que la Comisión Informativa de Organización celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengo onartzen du

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehena eta bakarra:** 2018/003 baja dataren zerrendan azaltzen diren erreziboak deuseztatzea, guztira 835,90 €-koa.

**Primero y único:** Anular la relación de recibos de la data de baja 2018/003 por importe total de 835,90 €

**4.- Eskola Kirola, ikastetxeekin hitzarmenak.**

**4.- Deporte Escolar, convenio con centros escolares.**

2018ko otsailaren 26ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

Visto que la Comisión Informativa de Ciudadanía celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengo onartzen du

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehena.-** Egape eta Presentación de María ikastetxeekin hitzarmena sinatzea onartzea.

**Primero.-** Aprobar la firma del convenio con los centros escolares Egape y Presentación de María.

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

**Bigarrena.-** Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen horiek sinatzeko

**Hirugarrena.-**

Presentación de María ikastetxeari 5.099,64 euroko diru-laguntza ematea **1 0420.481.326.20.01 2018 (517)** aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

Egape Ikastola ikastetxeari 10.740,64 euroko diru-laguntza ematea **1 0420.481.326.20.02 2018 (2485)** aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

**Laugarrena.-** Erabakiaren berri ikastetxeei eta sustapen eta kontu-hartzaitza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**5.- Sarobeko aire egokitua berritzeko obrak egiteko pleguak onartzea eta lizitazioa irekitzea**

Aurrekariak

2018ko urtarrilaren 11an Tokiko Gobernu Batzarrak Sarobe Arte eszeniko guneko aire egokitua berritzeko obra proiektua onartzeko erabakia hartu zuen.

Ondoren, udal arkitektoak proiektu horren erreplanteoa burutu zuen.

Akordio honetako 1. Akordioan adierazitako kontratazio espedienteari hasiera eman zaio Sail Sustatzaileak landutako eta bidalitako Sarobe arte eszeniko guneko aire egokitua berritzeko obra proiektua eta xedapenen zatian adierazten den kontratazioaren beharra motibatuzko txostenaren bidez.

Sail sustatzailearekin koordinatuta, Administrazio Baldintza Berezien Plegua prestatu da, modu honetan kontratazio espedientea osatuz.

2018ko otsailaren 26ean egindako Lurraldeko Batzorde Informatzaileak gaia aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

**Segundo.-** Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

**Tercero.-**

Aprobar la concesión de una subvención de 5.099,64 euros con cargo a la partida presupuestaria **1 0420.481.326.20.01 2018 (517)** al centro escolar Presentación de María, indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Aprobar la concesión de una subvención de 10.740,64 euros con cargo a la partida presupuestaria **1 0420.481.326.20.02 2018 (2485)** al centro escolar Egape Ikastola, indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

**Cuarto.-** Notificar este acuerdo a los centros escolares y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**5.- Aprobación del expediente y pliegos para la contratación de las obras de renovación del aire acondicionado de Sarobe.**

Antecedentes:

El proyecto de obras para la renovación del aire acondicionado del Centro de Artes Escénicas Sarobe fue aprobado por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 11 de enero de 2018.

Con posterioridad la arquitecto municipal ha realizado el replanteo del proyecto.

Ha dado inicio el expediente de contratación con la redacción y remisión, por parte del servicio promotor, del proyecto de obras para la renovación de la climatización del centro de artes escénicas Sarobe, e Informe de la contratación cuyo objeto se expresa en el acuerdo 1º de la parte dispositiva de este acuerdo.

Se ha redactado el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, en coordinación con el Departamento promotor, completándose de este modo el expediente de contratación.

Visto que la Comisión Informativa de Territorio celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema, aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko  
Gobernu Batzarrak hurrengo onartzen du

Realizada la tramitación legalmente establecida la  
Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-** Onartzea kontratazio espedientea eta bera arautuko duten Administrazio Baldintza Berezien Plegua (l. eranskina), alde batetik eta, bestetik, esleipen prozedurari hasiera eman, modu ohikoan izapidetuta eta prozedura irekiaren bidez erabilia, ondorengo helburua duen kontratuarena:

**Primero.-** Aprobar el expediente para la contratación y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (Anexo I) que lo regirá, por una parte, y por otra, disponer la apertura del procedimiento de adjudicación, a tramitar de forma ordinaria y en procedimiento abierto, del contrato del siguiente objeto:

*Sarobe Arte Eszeniko Guneko aire egokitua berritzea zerbitzua kontratatzeko zerbitzua.*

*Contratación para la renovación de la climatización del Centro Artes Escénicas de Sarobe.*

**Bigarrena.-** 130.374,21 eurotako gastua baimentzea (gehi BEZa), aurrekontuaren 1 0410.623.333.10.03 2018 partidaren kargura (1000 kodea), 2018ko ekitaldikoa.

**Segundo.-** Autorizar un gasto de 130.374,21 euros (más IVA), con cargo a la partida 1 0410.623.333.10.03 2018 (1000) del presupuesto del ejercicio 2018.

**Hirugarrena.-** Iragarkia GAOr a bidaltzea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, interesdunek beren proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

**Tercero.-** Remitir el anuncio al Boletín Oficial de Gipuzkoa y publicarlo en el perfil del contratante a fin de que los interesados puedan presentar sus propuestas.

**Laugarrena.-** Akordio hau Idazkaritzako, Hirigintzako eta Kontu-hartzailetzako sailletara igortzea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**Cuarto.-** Trasladar este acuerdo al departamento de Secretaria, Urbanismo e Intervención a los efectos oportunos.

**6.- Kiroldegiaren obrak burutu bitartean jarduerak egiten jarraitzeko beharrezko modulu prefabrikatu horniketa, aloairuan, instalazioa eta desmuntaiaren horniketa kontratuaren pleguak onartzea eta lizitazioa irekitzea.**

**6.- Aprobación del expediente y pliegos para la contratación del suministro, en régimen de alquiler, instalación y desmontaje, de módulos prefabricados necesarios para el desarrollo de la actividad deportiva durante la realización de las obras del polideportivo.**

**Aurrekariak**

**Antecedentes:**

Akordio honetako 1. Akordioan adierazitako kontratazio espedienteari hasiera eman dio *kirol jardueretarako modulu aurrefabrikatutako eta estalkien multzo bat alokairu-erregimenean hornitzea kontratatzeko* zerbitzu sustatzaileak landutako eta bidalitako Baldintza Teknikoen plegua eta xedapenen zatian adierazten den kontratazioaren beharra motibatuz txostena.

Ha dado inicio al expediente de contratación la redacción y remisión, por parte del servicio promotor del *suministro en régimen de alquiler de un conjunto de módulos prefabricados y cubiertas para la actividad deportiva*, del Pliego de Prescripciones Técnicas e Informe de la contratación cuyo objeto se expresa en el acuerdo 1º de la parte dispositiva de este acuerdo.

Sail sustatzailearekin koordinatuta, Administrazio Baldintza Berezien Plegua prestatu da, modu honetan kontratazio espedientea osatuz.

Se ha redactado el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, en coordinación con el Departamento promotor, completándose de este modo el expediente de contratación.

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

2018ko otsailaren 26ean egindako pLurraldeko Batzorde Informatzaileak gaia aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengo onartzen du

**ERABAKIA**

**Lehenengoa.-** Onartzea kontratazio espedientea eta bera arautuko duten Oinarri Teknikoen (III. Eranskina) eta Administrazio Baldintza Berezien Pleguak (II. Eranskina) ere, alde batetik eta, bestetik, esleipen prozedurari hasiera eman, modu ohikoan izapidetuta eta prozedura irekiaren bidez erabilita, ondorengo helburua duen kontratuarena:

*Kirol jardueretarako modulu aurrefabrikatutako eta estalkien multzo bat alokairu-erregimenean hornitzea*

**Bigarrena.-** 139.892,51 eurotako gastua baimentzea (gehi BEZa), aurrekontuaren 1 0420.201.342.00.01 2018 partidaren kargura (2743 kodea), 2018ko ekitaldian.

**Hirugarrena.-** Iragarkia GAOr a bidaltzea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, interesdunek beren proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

**Laugarrena.-** Akordio hau Idazkaritzako, Hirigintzako eta Kontu-hartzailetzako sailalara igortzea, dagozkion ondorioak izan ditzan

**7.- Urnieta berdegune, parke eta lorategien zaintza, mantenua, egokitzapena eta garbiketa zerbitzuen kontratuaren pleguak onartzea eta lizitazioa irekitzea.**

**Aurrekariak**

Akordio honetako 1. Akordioan adierazitako kontratazio espedienteari hasiera eman dio *Urnieta udalerrian dauden eremu berde, parke eta zelaien kontserbazio, mantenu, egokitzapen eta garbiketarako zerbitzuak prozedura irekian, arau harmonizatukoari lotuta, hainbat esleipen irizpiderekin, eta ohiko tramitazioarekin (2018-03 Esp.) kontratatzeko zerbitzu sustatzaileak landutako eta bidalitako Baldintza Teknikoen*

Visto que la Comisión Informativa de Territorio celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema, aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar el expediente para la contratación y los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares (Anexo II) y de Prescripciones Técnicas (Anexo III) que lo regirán, por una parte, y por otra, disponer la apertura del procedimiento de adjudicación, a tramitar de forma ordinaria y en procedimiento abierto, del contrato del siguiente objeto:

*Suministro en régimen de alquiler de un conjunto de módulos prefabricados y cubiertas para la actividad deportiva.*

**Segundo.-** Autorizar un gasto de 139.892,51 euros (más IVA), con cargo a la partida 1 0420.201.342.00.01 2018 (2743) del presupuesto del ejercicio 2018.

**Tercero.-** Remitir el anuncio al Boletín Oficial de Gipuzkoa publicarlo en el perfil del contratante a fin de que los interesados puedan presentar sus propuestas.

**Cuarto.-** Trasladar este acuerdo al departamento de Secretaria, Urbanismo e Intervención a los efectos oportunos

**7.- Aprobación del expediente y de los pliegos de los servicios de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines de Urnieta.**

**Antecedentes:**

Ha dado inicio al expediente de contratación la redacción y remisión, por parte del servicio promotor de la contratación del *servicio de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines existentes en el término municipal de Urnieta por procedimiento abierto sujeto a regulación armonizada con varios criterios de adjudicación y tramitación ordinaria (Exp 2018-03)*, del Pliego de



## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

plegua eta xedapenen zatian adierazten den kontratazioaren beharra motibatuzko txostena.

Sail sustatzailearekin koordinatuta, Administrazio Baldintza Berezien Plegua prestatu da, modu honetan kontratazio espedienteak osatuz.

2018ko otsailaren 26ean egindako Lurraldeko Batzorde Informatzaileak gaia aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengo onartzen du

Prescripciones Técnicas e Informe de la contratación cuyo objeto se expresa en el acuerdo 1º de la parte dispositiva de este acuerdo.

Se ha redactado el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, en coordinación con el Departamento promotor, completándose de este modo el expediente de contratación.

Visto que la Comisión Informativa de Territorio celebrada el 26 de febrero de 2018 ha tratado el tema, aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local adopta el siguiente

#### ERABAKIA

**Lehenengoa.-** Onartzea kontratazio espedienteak eta, bestetik, esleipen prozedurari hasiera eman, arau harmonizatuari lotuta izapidetuta eta prozedura irekiaren bidez erabilita, eskaintza ekonomikorik onenean, hainbat esleipen irizpiderekin, *Urnietako udalerrian dauden eremu berde, parke eta zelaien kontserbazio, mantenu, egokitzapen eta garbiketarako zerbitzuak prozedura irekian, arau harmonizatupekoari lotuta, hainbat esleipen irizpiderekin, eta ohiko tramitazioarekin (2018-03 ESP.)*

**Bigarrena.-** Urteko 202.928,21 eurotako gastua baimentzea (gehi BEZa), aurrekontuaren 1 0410.623.333.10.03 2018 partidaren kargura (1000 kodea), 2018ko ekitaldikoa eta 2019 eta 2020 ekitaldien aurrekontuen partida baliokideen kargura.

**Hirugarrena.-** *Urnietako udalerrian dauden eremu berde, parke eta zelaien kontserbazio, mantenu, egokitzapen eta garbiketarako zerbitzuak* arau harmonizatuari lotuta, prozedura irekian, eskaintza ekonomikorik onenean hainbat esleipen irizpiderekin eta ohiko kontratatze arautuko duten Oinarri Teknikoen (V. Eranskina) eta Administrazio Baldintza Berezien Pleguak (IV. Eranskina) onartzea.

**Laugarrena.-** Kontratazioaren iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkeri Ofizialean, GAO, eta kontratatzailearen profileen argitaratzea, interesdunek Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidalitako datatik 40 egun naturaleko epearen barruan beren proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

#### ACUERDO

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación, sujeto a regulación armonizada, mediante procedimiento abierto, oferta económicamente más ventajosa, con varios criterios de adjudicación, para el *Servicio de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines existentes en el término municipal de Urnieta por procedimiento abierto sujeto a regulación armonizada con varios criterios de adjudicación y tramitación ordinaria (EXP 2018-03)*, convocando su licitación.

**Segundo.-** Autorizar un gasto anual de 202.928,21 € con cargo a la partida 1 0300.227.171.00.01 2018 o equivalentes del presupuesto de los ejercicios 2019 y 2020.

**Tercero.-** Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares (Anexo IV) y de Prescripciones Técnicas (Anexo V) que regirán el contrato de servicios de *Servicio de conservación, mantenimiento, adecuación y limpieza de las zonas verdes, parques y jardines existentes en el término municipal de Urnieta*, sujeto a regulación armonizada, por procedimiento abierto, oferta económicamente más ventajosa, con varios criterios de adjudicación.

**Cuarto.-** Publicar en el Diario Oficial de la Unión Europea, en el Boletín Oficial del Estado, en el Boletín Oficial de la Provincia de Gipuzkoa y en el Perfil de contratante anuncio de licitación, para que durante el plazo de 40 días naturales desde el envío de esta licitación al diario Oficial de la Unión

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

p

Europea los interesados puedan presentar las proposiciones que estimen pertinentes.

**Bosgarrena.-** Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean kontratazioaren iragarkia argitaratzen denean, Kontratailearen profilean, kontratazio hau arautuko duten oinarriak argitaratzea.

**Quinto.-** Publicar los pliegos de contratación en el Perfil de Contratante a partir de la fecha de publicación del anuncio en el *Diario Oficial de la Unión Europea*.

**8.- Bestelakoak.**

**8.- Otros.**

Ez dago.

No hay.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da, eta nik, idazkariak, hala ziurtatzen dut

Y sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión, de la que yo, el Secretario, certifico.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Idazkaria

Alkate-lehendakaria

## **I. Eranskina / Anexo I**

**SAROBE ARTE ESZENIKOEN GUNEAN KLIMATIZAZIO INSTALAZIOA ERABERRITZEKO LANAK PROZEDURA IREKI, ESKAINTZA EKONOMIKO ONURAGARRIEN, ESLEIPEN IRIZPIDE BAKARRA PREZIORIK MERKEENA ETA IZAPIDETZE ARRUNT BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA (2018-04 ESP).**

### **I. KONTRATUAREN EDUKIA**

#### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: Sarobe Arte Eszeniko Guneako aire egokitua berritzea, eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

CPV-08 kodea: 45331220-4- Aire egokituaren instalazio lanak.

#### **2. OBRAK BURUTZEKO EPEA**

Kontratu honen xede diren obrak burutzeko epea hau da: 4 hilabete. Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Hornidurak epe horietan ematen ez badira, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

#### **3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua: 130.374,21 € gehi 27.378,58 € BEZari dagozkionak. Lizitatuzaileek aurrekontua hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lizitatuzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioaren oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lizitatuzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

#### **4. FINANTZABIDEAK**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

#### **5. NOLA ORDAINDU**

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

#### **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

#### **7. BERMEAK**

Kontratuaren esleipenduna, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen diren estatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabili daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak betetuta badaude. Itzulketan hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

## **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratu hau burutu ahal izateko, gizarte- edota ingurumen-alorreko baldintza berezi hauek bete beharko dira derrigorrez:

Enpresa kontratatzailea indarrean dauden xedapenak betetzera derrigortua dago lan gaitetan, Gizarte Segurantzakoetan, laneko segurtasunari eta osasunari dagozkienak eta lan-integratioari dagozkionak, bereziki hitzarmen kolektiboetan, enpresako itun edo akordioetan edota lan kontratuetan aitortutako lan baldintzekin.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLTBaren 118.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, betebeharrak ez betetzeak kontratua etetea ekar dezake berarekin, 223.f). artikuluan adierazi den moduan.

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren betebeharrak, SPKLTBren 229 artikulua xedatzen duenaren arabera.

Kontratuaren kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 231. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateratua eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## **9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK**

Kontratuaren xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legeko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## **10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturik egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere aginduek

dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

#### **11. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat. Aipatu Legearen 234.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak Administrazioak zehaztuko ditu. Kontratatistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

#### **12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA**

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzaileren esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, urtebeteko epea egongo da harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, kontratatistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratatistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzaileren esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratatistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

#### **13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

##### **A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**

Kontratatistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

##### **B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA**

Kontratatistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

##### **C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA**

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

##### **D. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA**

Lanak burutzean 8. klausulan adierazitako gizartearen edo ingurumenaren arloko baldintza bereziak betetzen ez badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

#### **E. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA**

Kontratatistak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 20. artikuluan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

#### **14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Kontratu amaizteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 237. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

#### **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK**

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

### **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

#### **16. ESLEIPENAREN PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

- Prezioa. Eskaintzarik baxuena.

Eskaintzak neurrigabeak edo anormalak direla eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako parametro objektiboek zehaztuko dizkigute, beti ere aurkeztu diren eskaintza onargarrien multzoarekin alderatuta.

#### **17. KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria:
  - o Udal Arkitekta, edo berak izendatzen duena.
- Batzordekideak:
  - o Udal Idazkaria, edo berak izendatzen duena.
  - o Udal Kontu-hartzailea, edo berak izendatzen duena.
  - o Talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.
- Mahaiko idazkaria:
  - o Administrazio Orokorreko Teknikaria, edo berak izendatzen duena.

#### **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoia direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 20.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoia, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

#### 19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako BERTAN bulegoan ORDUAK07:30-14:30. EPEA: Egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 26 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da:

[www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus)

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lan tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztu diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatuzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

#### 20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatuzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "SAROBRE ARTE ESZENIKOEN GUNEAN KLIMATIZAZIO INSTALAZIOA ERABERRITZEKO LANAK PROZEDURA IREKI, ESKAINTZA EKONOMIKO ONURAGARRIEN, ESLEIPEN IRIZPIDE BAKARRA PREZIORIK MERKEENA ETA IZAPIDETZE ARRUNT BIDEZ EGINGO DEN



## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA (ESP 2018-04)-REN PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

**“A” KARTAZALAREN azpititulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”.** Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Lizitzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzeritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Lizitzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitortpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

#### **e) Kaudimen ekonomiko finantzarioa eta teknikoa**

\* Ondorengo agiriak aurkeztuz bere kaudimen ekonomiko finantzarioa egiaztatzea:

- Sailkapen ziurtagiria, Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Departamentuak emandakoa, ondorengo taldean obren kontratista bezala inskribatua dagoela egiaztatzen duena:
  - o J taldea, 2. azpitaldea 2. kategoria (edo 1)

Sailkatu gabe egonez gero bere kaudimena modu honetara egiaztatu beharko du:

e.1.) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa:

Baldintzak:

- Urteko negozio bolumena: amaitutako azken hiru urteetatik negozio bolumen handienekoa kontuan hartuta, gutxienez kontratuaren balio estimatua 1,5 aldiz izan beharko da.





## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

Egiaztatzeko moduak

- Enpresaren azken hiru urteetako negozio zifra globalari buruzko aitortpen arduratsua, urtez urteka banatuta.

CPV-08 kodea: 77311000-3. Parke eta zelaien mantenuaren zerbitzuak.

**2. EPEA**

Kontratuaren iraunaldia hau izango da: 2 urte

Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita kontatuko da epe hori. Kontratua urtero luzatu egin daiteke, alderdi biek batera hala erabakitzen badute, eta luzapenak, gehienez, lau urte iraun dezake.

**3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Kontratuaren urteko aurrekontua hau izango da: 167.709,26 € gehi 35.218,94 BEZari dagozkionak. Lizitatuzaileek aurrekontua hobetu dezakete.

Kontratuaren balio estimatua 721.149,81 €-takoa da.

**4. FINANTZABIDEAK**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Halaber, eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaitan eskumena duen organoak.

**5. NOLA ORDAINDU**

Administrazioari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa. Ordainketa honela egingo da:

- Kontzeptuak biltzen dituen hilabetetik behingo ziurtagiri edo fakturaren kontra.

**6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

**7. BERMEAK**

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da, BEZa kenduta.



Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabili daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

## **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratu hau burutu ahal izateko, gizarte- edota ingurumen-alorreko baldintza berezi hauek bete beharko dira derrigorrez:

Kontratu hau burutu ahal izateko gizarte edo ingurugiro izaerako ondorengo baldintza bereziak eskatuko dira:

Kontratista beharturik dago lan, gizarte segurtasun eta laneko segurtasun eta osasun eta lan mundurako integrazio arloan indarrean dauden xedapenak eta bereziki:

- a) Hitzarmen kolektiboetan, itunetan, enpresa-akordio edo aplikagarri diren lan-kontratuetan jasotzen diren lan baldintzekin.
- b) Agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian kontratua betetzeko atxikitako gutxieneko langileria mantentzea, bai edozein motatako langile subrogazioaren ondorioz bai Udalak zerbitzua emateko eskatutako baldintzen definizioarengatik, lan-kontratuak eten edo iraungi gabe eta etetea edo iraungitzea langilearen borondatezkoa edo diziplinazko kaleratzea ez bada.
- c) Kontratuaren burutzen ari den bitartean lan-baldintzak alde bakarretik ez gutxitzea lanaldi eta soldatari dagokionean, aztertutako terminoetan, ezta eskaintzara aurkeztutakoan aplikatutako den lan-hitzarmenaren ondorioz kontratuari atxikitako langileei uneoro dagokien oinarritako lan-arloko legeriaren gainean edonolako hobekuntzarik egitea ere enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordio esplizitua ez bada.
- d) Langileei buruzko dokumentazio oso eta egiaztatagarria eskura izatea, baldintza agiri honetan ezarritakoarekin bat kontratazio organoari aurkezteko edo honek eskatzen duenean eta aipatutako organoak ikuskaritza egin dezakeela langileei jakinaraztea.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLTBaren 118.2. artikulua araberaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak kontratua etetea eragin dezake, 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Kontratuaren burutzearen gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratuaren Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoari egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## **9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK**

Kontratatistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higieenaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginekoko 44. Artikuluak xedatutakoarekin bat langileen subrogazioa egin beharko balitz, edo aplikagarria den hitzarmen kolektiboan betebeharrak hau ezarrita balego, eranskin bezala erantsen da, informazio gisa eta SPKLTB-aren 120 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratuaren egungo esleipendunak emandako une honetan zerbitzua ematen ari diren langileen zerrendan, kategoria profesionala eta bakoitzaren urteko soldata gordina adieraziz.

## **10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Kontratatistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

## **11. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du jarraian adierazten diren kasuetan, baldintzetan eta irismen eta mugekin:

- Prezio globala aldaezina izango da mantendu beharreko azalera guztiaren gehikuntzak hasierakoa %5ean gainditzen ez duen bitartean. Portzentajea hori gainditzen denean, berdegune, parke eta lorategiak gehitu edo murrizteagatik, kontratua aldatzeko espedienteari hasiera emango zaio kontratuaren prezioaren %30eko mugarekin.

Aldaketek kontratuaren prezioan, gehienez, portzentaje honetan eragin dezakete: % 30a.

Aitzitik, SPKLTBaren 107 artikuluan berariaz jasotako baldintzak jazotzen direnean ere alda daiteke kontratua, beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratatistarentzat.

## **12. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA**

Zerbitzua eman eta, gehienez, 30 egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formalak egingo da.

Gainera, 3 hilabeteko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuen eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, kontratista izango da erantzulea.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratatistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

## **13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

#### **G.KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**

Kontratatistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

#### **H.PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA**

Kontratatistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

#### **I.KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA**

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du..

#### **J.KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA**

Lanak burutzean 8. klausulan adierazitako gizartearen edo ingurumenaren arloko baldintza bereziak betetzen ez badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

#### **K.KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA**

Kontratatistak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 20. klausulan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

#### **14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 308. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

#### **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK**

Udalari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

### **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

#### **16. ESLEIPENAREN PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

<p>* Proposamen ekonomikoa... 51 puntu</p> <p>Prezioa eskaintzarik onenari puntuaziorik handiena emanez kalkulatu da eta gainerako eskaintzei puntuazio onenari beherapena portzentajea eta eskaintza merkeenaren arteko puntu diferentzia kentzetik lortutako emaitza emango zaie.</p> <p>Eskaintzarik onena: EO Lizitazioaren prezioa: LP Ontzat jotako eskaintza: OE Beharpen portzentajea: BP= 1-LP/OE Eskaintzarik onenaren beharpen portzentajea: EOBP Puntuazioa: 51-(EOBP-BP)*100</p>	<p>51 puntu</p>								
<p><b>* Describapena, programazioa eta zerbitzuaren antolaketa, honela xehetuta:</b></p>	<p><b>49 puntu</b></p>								
<p><b>- Antolaketa eta zerbitzuaren programazioa.</b></p> <p>Urteko programazioa eta zerbitzuaren antolaketa ideiak zehaztuz eta lanak egiteko erari eta orokorrean zerbitzuari buruzko funtzio proiektua.</p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 15 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="212 1218 584 1359"> <tr> <td>Oso altua</td> <td>11,25etik 15era</td> </tr> <tr> <td>Altua</td> <td>7,50etik 11,25era</td> </tr> <tr> <td>Normala</td> <td>3,75etik 7,50era</td> </tr> <tr> <td>baxua</td> <td>0tik 3,75era</td> </tr> </table>	Oso altua	11,25etik 15era	Altua	7,50etik 11,25era	Normala	3,75etik 7,50era	baxua	0tik 3,75era	<p>15 puntu</p>
Oso altua	11,25etik 15era								
Altua	7,50etik 11,25era								
Normala	3,75etik 7,50era								
baxua	0tik 3,75era								
<p><b>- Egin beharreko lanetarako izendatutako langileen antolakuntza erabiliko diren giza baliabideak, organigramak, lanerako emandako guneak, giza baliabideen politika, heziketa, ordezkapenak eta absentismoa.</b></p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 10 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="212 1697 547 1839"> <tr> <td>Oso altua</td> <td>7,5etik 10era</td> </tr> <tr> <td>Altua</td> <td>5etik 7,5era</td> </tr> <tr> <td>Normala</td> <td>2,5etik 5era</td> </tr> <tr> <td>baxua</td> <td>0tik 2,5era</td> </tr> </table>	Oso altua	7,5etik 10era	Altua	5etik 7,5era	Normala	2,5etik 5era	baxua	0tik 2,5era	<p>10 puntu</p>
Oso altua	7,5etik 10era								
Altua	5etik 7,5era								
Normala	2,5etik 5era								
baxua	0tik 2,5era								
<p><b>- Baliabide teknikoak.</b></p> <p>Zerbitzuari atxikitako makineria, ibilgailuak eta erremintak, agiri teknikoan jarritako gutxienetik aurrera.</p>	<p>6 puntu</p>								

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

<p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 6 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="213 483 517 622"> <tr> <td>Oso altua</td> <td>4,5etik 6ra</td> </tr> <tr> <td>Altua</td> <td>3tik 4,5era</td> </tr> <tr> <td>Normala</td> <td>1,5etik 3ra</td> </tr> <tr> <td>baxua</td> <td>0tik 1,5era</td> </tr> </table>	Oso altua	4,5etik 6ra	Altua	3tik 4,5era	Normala	1,5etik 3ra	baxua	0tik 1,5era																	
Oso altua	4,5etik 6ra																								
Altua	3tik 4,5era																								
Normala	1,5etik 3ra																								
baxua	0tik 1,5era																								
<p><b>- Eskaintzaren ingurumen kalitatea:</b></p> <p>- Espezieak aldatzeko programa: espezie aniztasuna mantentzea, habitat desberdinak sortzea, bertako landareekin naturalizazioa eta espezieak berriz sartzear baloratuko da (0tik 2 puntura)</p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 2 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="213 992 517 1131"> <tr> <td>Oso altua</td> <td>1,5etik 2ra</td> </tr> <tr> <td>Altua</td> <td>1etik 1,5era</td> </tr> <tr> <td>Normala</td> <td>0,5etik 1era</td> </tr> <tr> <td>baxua</td> <td>0tik 0,5era</td> </tr> </table> <p>- Soinuei buruzko programa: Kontratan erabiliko diren makineria eta ibulgailuentzat, zaratak, orokorran mugatzea, ziurtagiri ekologikoa duten makineria erabiltzea, olio lubrifikatzaile birziklatu edo ekologikoa erabiltzea eta eskuko zerrak 4 aldiko motoreekin ordezkatzear balioztatuko da. (0tik 2 puntura).</p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 2 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="213 1440 517 1579"> <tr> <td>Oso altua</td> <td>1,5etik 2ra</td> </tr> <tr> <td>Altua</td> <td>1etik 1,5era</td> </tr> <tr> <td>Normala</td> <td>0,5etik 1era</td> </tr> <tr> <td>baxua</td> <td>0tik 0,5era</td> </tr> </table> <p>- Zerbitzu honetan sortutako landare hondakinen eta etxeko hondakintzat jo daitezkeen hondakinen kudeaketa plana.</p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 4 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="213 1854 517 1993"> <tr> <td>Oso altua</td> <td>3tik 4ra</td> </tr> <tr> <td>Altua</td> <td>2tik 3ra</td> </tr> <tr> <td>Normala</td> <td>1etik 2ra</td> </tr> <tr> <td>baxua</td> <td>0tik 1era</td> </tr> </table>	Oso altua	1,5etik 2ra	Altua	1etik 1,5era	Normala	0,5etik 1era	baxua	0tik 0,5era	Oso altua	1,5etik 2ra	Altua	1etik 1,5era	Normala	0,5etik 1era	baxua	0tik 0,5era	Oso altua	3tik 4ra	Altua	2tik 3ra	Normala	1etik 2ra	baxua	0tik 1era	<p>8 puntu</p>
Oso altua	1,5etik 2ra																								
Altua	1etik 1,5era																								
Normala	0,5etik 1era																								
baxua	0tik 0,5era																								
Oso altua	1,5etik 2ra																								
Altua	1etik 1,5era																								
Normala	0,5etik 1era																								
baxua	0tik 0,5era																								
Oso altua	3tik 4ra																								
Altua	2tik 3ra																								
Normala	1etik 2ra																								
baxua	0tik 1era																								

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

<p><b>- Jarraipenaren informatizazioa, erregistroa eta egindako lanen kontrola.</b></p> <p>- Berdegune eta zuhaitzien inbentarioa egiteko, eguneratzeko eta mantzentzeko programa (0tik 3 puntura)</p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 3 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="212 633 584 777"> <tr><td>Oso altua</td><td>2,25etik 3,00ra</td></tr> <tr><td>Altua</td><td>1,50etik 2,25era</td></tr> <tr><td>Normala</td><td>0,75etik 1,50era</td></tr> <tr><td>baxua</td><td>0tik 0,75era</td></tr> </table> <p>- Zerbitzua garatzeko software operatiboa, hileko lanaren partea egiteko eta urteko memoria aurkezteko eredia erantsiz (0tik 4 puntura)</p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 4 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="212 1021 515 1164"> <tr><td>Oso altua</td><td>3tik 4ra</td></tr> <tr><td>Altua</td><td>2tik 3ra</td></tr> <tr><td>Normala</td><td>1etik 2ra</td></tr> <tr><td>baxua</td><td>0tik 1era</td></tr> </table>	Oso altua	2,25etik 3,00ra	Altua	1,50etik 2,25era	Normala	0,75etik 1,50era	baxua	0tik 0,75era	Oso altua	3tik 4ra	Altua	2tik 3ra	Normala	1etik 2ra	baxua	0tik 1era	7 puntu
Oso altua	2,25etik 3,00ra																
Altua	1,50etik 2,25era																
Normala	0,75etik 1,50era																
baxua	0tik 0,75era																
Oso altua	3tik 4ra																
Altua	2tik 3ra																
Normala	1etik 2ra																
baxua	0tik 1era																
<p><b>- Larrialdi edo egoera berezietan egingo den jarduketaren proposamena, dituen giza eta material baliabideen xehetasunak adieraziz (0tik 3 puntura).</b></p> <p>Puntuaketarako irizpidea eskainiko den zerbitzuari atxikitako proposamenaren zenbait kalitate eta egokitasun indizerekin bat etorriko da eta ondorengo baremoan hauen artekoa izango da: oso altua, altua, normala eta baxua (0tik 3 puntura).</p> <table border="1" data-bbox="212 1440 584 1583"> <tr><td>Oso altua</td><td>2,25etik 3,00ra</td></tr> <tr><td>Altua</td><td>1,50etik 2,25era</td></tr> <tr><td>Normala</td><td>0,75etik 1,50era</td></tr> <tr><td>baxua</td><td>0tik 0,75era</td></tr> </table>	Oso altua	2,25etik 3,00ra	Altua	1,50etik 2,25era	Normala	0,75etik 1,50era	baxua	0tik 0,75era	3 puntu								
Oso altua	2,25etik 3,00ra																
Altua	1,50etik 2,25era																
Normala	0,75etik 1,50era																
baxua	0tik 0,75era																

Aipatutako irizpideetatik, **BALIO-JUDIZIOAREN MENPEKOAK B GUTUN-AZALEAN** sartu beharrekoak eta zuzeneko balio-irabaztekoen aurretik balioztatuko direnak, ondorengoak dira:

- Honela xehetutako zerbitzuaren deskripzio, programazio eta antolakuntza:
  - Zerbitzuaren antolakuntza eta programazioa
  - Egin beharreko lanetarako izendatutako langileak
  - Baliabide teknikoak
  - Eskaintzaren ingurumen kalitatea
  - Espezieak berriz jartzeko programa
  - Soinuen programa
  - Landare hondakinen kudeaketa programa
  - Egindako lanen jarraipen, erregistro eta kontrolaren informatizazioa



## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

- Berdegune eta zuhaitzen inbentarioa egiteko, eguneratzeko eta mantentzeko programa
- Zerbitzuaren garapenerako software operatiboa
- Larrialdi edo egoera berezietan egingo den jarduketaren proposamena

B GUTIN-AZALEAN ez da inola ere proposamen ekonomikorik edo C gutun-azalean sartu behar diren automatikoki kuantifikagarriak diren irizpideei dagozkien daturik sartuko.

Aipatutako edozein datu B gurun-azalean sartzeak, enpresa lizitazailea prozedura honetatik kanpo uztea ekarriko du eta ez da C gutun-azala irekiko.

**ZUZENKO BALIO-IRABAZTE IRIZPIDEAK, C GUTUN-AZALEAN sartu beharrekoak,** ondoren adierazten direnak dira eta ondorengo formulak aplikatuz balioztatuko dira:

\* Proposamen ekonomikoa... 51 puntu

Prezioa eskaintzarik onenari puntuaziorik handiena emanez kalkulatu da eta gainerako eskaintzei puntuazio onenari beherapena portzentajea eta eskaintza merkeenaren arteko puntu diferentzia kentzetik lortutako emaitza emango zaie.

Eskaintzarik onena: EO

Lizitazioaren prezioa: LP

Ontzat jotako eskaintza: OE

Beharpen portzentajea:  $BP = 1 - LP/OE$

Eskaintzarik onenaren beherapen portzentajea: EOBP

Puntuazioa:  $51 - (EOBP - BP) * 100$

Neurriz kanpoko eskaintzen edo eskaintza anormalen ondorioz bete ezin diren proposamenen mugak ondorengoak izango dira: lizitazio prezioaren €20ko beherapena

#### LEHENTASUNAK

Kontrata esleitzeko lehentasuna emango zaie, proposamena aurkezterakoan, kaudimen tekniko frogatzerakoan, euren langileria artean desgaitasuna duten langile kopura %2a baino kopuru handiagoa duten enpresei, beti ere, euren proposamenik baldintza onenak eskaintzen dituztenak berdintzen badituzte esleipenerako oinarriko irizpideak izan daitezkeenaren ikuspuntutik.

Kontratuak esleitzeko lehentasuna izango dute, ekonomiaren aldetik onuragarrienak diren kontratuen baldintza berdinetan, abenduaren 13ko 44/2007 Legean laneratze-enpresen araubideari buruzkoan, aurreikusitako laneratze-enpresek aurkeztutako proposamenek, baldin eta araudi horren izaera hori izateko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

#### **17. KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria:
  - o Zerbitzu eta Mantenuko Teknikaria, edo berak izendatzen duena.
- Batzordekideak:
  - o Udal Idazkaria, edo berak izendatzen duena.
  - o Udal Kontu-hartzailea, edo berak izendatzen duena.
  - o Talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.
- Mahaiko idazkaria:
  - o Administrazio Orokorreko Teknikaria, edo berak izendatzen duena.

## **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 20.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen enpresa edo profesional gaitasuna izan beharko dute.

## **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, honako lekuan eta ordutegian aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako BERTAN bulegoan ORDUAK: 07:30 -14:30 egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Europako Erkidegoetako Agintaritzaren Egunkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Hauek euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko dira aipatutako toki eta ordutegi berean, Europako Erkidegoetako Agintaritzaren Egunkarira lizitazio hau bidali eta 40 egun naturaleko epean.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organismoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da:

[www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus)

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatuzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organismoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

## **20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA**

Lizitatuzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "URNIETAKO UDALERRIAN DAUDEN EREMU BERDE, PARKE ETA ZELAIEN KONTSERBAZIO, MANTENU, EGOKITZAPEN ETA GARBIKETARAKO ZERBITZUAK



**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENPE, ESLEITZEKO ZENBAIT IRIZPIDEREKIN ETA OHIKO IZAPIDEAREKIN PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA (2018-03 ESP)”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

**“A” KARTAZALAREN azpititulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”.** Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Lizitzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskitura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da. . Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Hitzarmena sinatu duten estatuetakoen enpresek ez dute elkarrekikotasunari buruzko txostena aurkeztu beharko.

c) Eskaintzaileak erantzukizunpeko berriazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitortpen horretan berriaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Kontratatzeke ekonomia- eta finantza- kaudimena eta kaudimen teknika dituela egiaztatzea, ondorengo dokumentuak aurkeztuta

- Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emandako sailkapen ziurtagiria, zerbitzu-kontrata gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena, O Taldean. 6. Azpialdean, 2. Kategorian, 773/2015 Errege Dekretuaren arabera.

Sailkatuta egongo ez balitz, bere kaudimena honela egiaztatu beharko du:

- Ekonomia- eta finantza- kaudimena,
  - Enpresa lizitzailearen urteko negozio bolumenak amaitutako azken hiru urteetatik negozio bolumen handienekoa kontuan hartuta, gutxienez kontratuaren balio estimatua 1,5 aldiz izan beharko da.

**2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018**

Lizitatzaiarearen edo hautagaiaren negozioen urteroko zenbatekoa urtero onartutako eta Merkatal Erregistroan erregistratutako kontuen bitartez egiaztatutako da enpresa erregistro horretan erregistratuta balego eta ez balego, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean inskribatutakoak. Merkatal Erregistroan inskribatuta ez dauden bakarkako enpresak urteroko negozioen zenbatekoa egiaztatuko dute inbentario liburu eta Merkatal Erregistroan legeztatutako urteroko kontuen bitartez.

- Azken bost urteetan eskainitako zerbitzu nagusien edo egindako lan nagusien zerrenda. Zerrendan, bestalde, zerbitzuen eta lanen zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak zehaztuko dira. Eskainitako zerbitzuak edo egindako lanak egiaztatzeko, organo eskudunak emandako edo ikus onetsitako egiaztagirak aurkeztuko dira, baldin eta hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada. Hartzailea erakunde pribatu bat baldin bada, egiaztapena erakunde horrek egindako egiaztagiri baten bidez egingo da eta ziurtagiri hau ez balego, enpresariaren adierazpen batekin, dena den, ziurtagiri hauen berri dagokion eskudun agintariak zuzenean jakinaraziko dizkio kontratazio organoari.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa, BEZ Gabe, kontratuaren batz besteko balioaren berdina edo handiagoa izatea edo batz besteko urtekaria (BEZ kenduta), berori kontratuaren batz besteko balioa baino txikiagoa denean, enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede direnen arteko egokitzea sailkapen azpitalde berekoa denean.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen inguruko jardun onaren ziurtagiriak sektore publikoko erakunde batentzat badira, zuzenean kontratazio organoari helarazi ahal izango dio zerbitzua kontratatu duen erakundeak.

Kaudimena frogatzeko, gainera, lizitatzaierek haien eskaintzetan zehaztutako baliabide materialekin eta giza baliabideekin osatuko da. Hori kontratuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPKLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Ondorio horietarako, lizitatzaierek **erantzukizunezko adierazpen bat** aurkeztu beharko dute, gutxienez, kontratuari ondorengo baliabide materialak atxikitzeko:

Plataforma eta bola dituen kamioneta.

Atoaia.

Belarra mozteko traktorea.

Hiru soropil-ebakitzeko.

Lau sasi-garbitzeko makina.

Bi hosto-haizagailu.

3 Eskai-mozteko..

3 Motozerra.

Motoaitzurra.

Kimaketarako aldamiokak.

Kimaketarako eskailera, kimatze elektrikoa egiteko guraizeak, eskuko erreminta.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldekik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

Enpresa lizitatzaierek, hasieran A gutun-azalean sartzea eskatutako b), c), e) eta f) zenbakietako dokumentazioa Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztuz ordezkatu dezakete.



## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

EKAB normalizatutako formularioa elektronikoki betetzeko ondorengo Web helbidean dago:  
<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>

Era berean, Urrietako Udaleko kontratatzailearen profilean, XML formatua eskuragarri dago inportatu ahal izateko eta enpresa lizitatzailleek EKAB agiria betetzeko.

Enpresa lizitatzailleek II eta III zatiak, IV zatiko a atala eta VO zatia bakarrik bete beharko dituzte. Ondorio horietarako Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 6ko ebazpenean jasotako orientabideak jarraitu beharko dira; ebazpen horrek kontratazio publikoko zuzentarau berrian aurreikusitako Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarraren (2016ko apirilaren 8ko BOEn argitaratua) erabilerari buruzko Administrazio Kontratazioko Kontsulta Batzordearen gomendioa argitaratu zuen.

Enpresa lizitatzailleak ez daude behartuta azpikontratasta izan litezkeenak baztertzeko arrazoiei buruzko informazioa ematera.

Enpresa lizitatzailleak egiaztatu egin beharko du exijitutako agiriak badituela eta baliozkoak direla esleipendun proposatzen bada edo horretarako errekerimendua egiten bazaio (prozeduraren edozein unetan, berorren garapen egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen denean).

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBaren 151.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatzaileren eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzaillearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke

Enpresa lizitatzailleek, kontratua esleitu ondoren eta helegiteak aurkezteko epeak inork aurkeztu gabe igaro direnean, A gutunazal honetan aurkeztutako dokumentazioaren itzultzea eskatu ahal izango dute. Enpresa esleipendunak, era berean, kontratuaren gauzapena amaitutakoan eta behin-betiko bermea itzultitakoan eskatu ahal izango du. Lizitatzailleek kontratua formalizatzen denetik hasita urtebeteko epean aipatu dokumentazioaren itzulketa eskatzen ez badute, Udalak dokumentazioa hori deuseztatu ahal izango du.

**“B” KARTAZALAREN azpitulua hau izango da: “BALIO JUDIZIO BATEN ARABERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEAK”.** Bertan, baldintza-agiri honen 16. klausulan adierazitako balio-judizio baten menpe dauden irizpideei buruzko agiriak jasoko dira.

**“C” KARTAZALAREN azpitulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK”.** Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

b) I. Eranskinean xedatutako ereduaren arabeko diru-proposamena.

Jatorrizko agiriak edo kopia aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez

daitezke baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.

(25. jarraibidea)

## **21. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

### **7. "A" KARTAZALA IREKI ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK PROZESATZEA**

Mahaiak "A" kartazalean dauden agiriak sailkatuko ditu. Horretarako, lizitatzaileren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibideak edo agiri osagarriak eska daitezke. Mahaiak, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 22. artikuluan adierazten den eran jardungo du, bost egun naturaleko epean. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lizitatzailerek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitatzailerei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatutako Araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

### **8. ENPRESAK AUKERATZEA**

Behin agiriak sailkatuak, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 20. baldintzako e) letran azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

### **9. "B" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA**

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten arabera irizpideen baitan, publikoki irekiko da kontratatzailearen profilean zehazten den egunean eta orduan. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako, SPKLaren zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irizpide horiek balioesteko epea 15 egunekoa izango da, irekiera-ekitaldia egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

### **10. "C" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA**

"B" kartazalean zegoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ostean, "C" kartazala irekiko da publikoki kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

### **11. ESKAINTZAK SAILKATZEA**

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBaren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean lizitatzaileri (edo lizitatzailerei, hala dagokienez) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko egin beharko du.

Kasu honetan, lizitatzaileri emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileri egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarrienaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

#### 12. ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontaktzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

- i) Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimenaren aurrebetekizunak betetzen direnaren agiri egiaztagarriak hasieran EKAB agiriarekin ordezkatu bada.
- j) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- k) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 20. klausulako e) letraren arabera.
- l) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, hala badagokio.
- m) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duten kartazaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.
- n) Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzailleak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailleari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

#### 22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailleari egingo dio esleipena.

Esleipena 2 hilabeteko epean egingo da proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Horren berri lizitatzaille guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatu burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Kontratuak kontratazioaren alorreko errekurtsio berezia jartzeko aukera eskaintzen duenez SPKLTBaren 40.1 artikulua arabera, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaillei eta hautagaiei bidali eta hamabost egun baliodun pasa aurretik. Epe horretan, aipatu errekurtsioa jar daiteke eta hala gertatzen bada, kontratatzekeko prozeduraren izapideak bertan behera geratuko dira errekurtsioa ebatzi arte, zeina SPKLTBaren 40 eta hurrengo artikuluen arabera emango den.

Aipatu hamabost egunak errekurtsorik jarri gabe pasatzen badira, esleipendunari kontratua formalizatzeko eskatuko zaio bost eguneko epean errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Formalizatu aurretik, esleipendunak aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordainduko ditu. Gastu horien zenbatekoa 1.500 € izango da, gehienez.

**III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

**23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoaren arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Lagislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/200a Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

**24. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

**25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratu honetatik erator litezkeen kontu eztabaidagarriak kontratazio organoak erabakiko ditu, eta horren erabakien administrazio bideari amaiera emango diote, eta Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren aurrean zuzenean inpugnatu ahal izango dira, alde batera utzirik, bere kasuan, SPKLTBaren 40tik 49ra bitarteko artikuluek araututako kontratazio gaietako errekurso berezia edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozein jartzea dagokion edo ez.

....., 20....(e)ko ..... aren ....(a)



## 2018KO MARTXOAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 1 DE MARZO DE 2018

#### I. ERANSKINA LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK JARRAITUKO DUTEN DIRU PROPOSAMENAREN EREDUA

Lizitatzaillearen datuak: Izen-abizenak ..... Helbidea  
..... Posta kodea ....., NAN zenbakia  
....., Telefonoa ..... Helbide elektronikoa.....,  
zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin. Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-  
abizenak ..... Helbidea  
..... Posta kodea ....., Telefonoa  
..... NAN edo IFK zenbakia (persona fisiko edo juridikoa denaren arabera)  
..... kontratatzeko asmoz ..... k dei egindako prozedura  
ireki bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA:

